

154. FITXA Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitu eta immigrazioaren eta kultura arteko bizikidetzaren alorrean jarduerak garatzeko dirulaguntzak

Nori zuzendua: EAEko toki-entitateak; EAEko tokiko organismo autonomoak eta EAEko tokiko merkataritza-sozietateak.

Sarbide-esteka: [Immigrazioaren eta kultura arteko bizikidetzaren alorrean jarduerak garatzeko dirulaguntzak 2025 - Eusko Jaurlaritza](#); [Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak 2025 - Eusko Jaurlaritza](#)

Erreferentziazko araudia: [AGINDUA, 2025eko ekainaren 18koa, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena, EAEko toki-entitateei, tokiko organismo autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei laguntza ekonomikoak emateko oinarriak onartzekoa, immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitu eta immigrazioaren eta kultura arteko bizikidetzaren alorrean jarduerak gara ditzaten, eta laguntza horien 2025. urterako deialdia egitekoa](#)

Eremuak: Immigrazioa

Zenbatekoa: 1.330.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/08/04

Laburpena

Deialdi honen xedea da laguntza ekonomiko hauek arautu, eta 2025. urterako deialdia egitea: EAEko toki-entitateei, tokiko organismo autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei laguntza ekonomikoak ematea, **immigrazioko teknikariak kontratatzen jarraitzeko eta immigrazioaren eta kultura arteko bizikidetzaren alorrean jarduerak egiteko**.

Jarduketa-ildoek, immigrazio-teknikarienak zein diruz lagundutako proiektu eta programenak, bat etorri beharko dute **Herritarren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Planarekin (2022-2025)**.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

1. lerroa: Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak:

Laguntza-lerro honen xedea da EAEko toki-entitateek, tokiko organismo autonomoek eta tokiko merkataritza-sozietateek beren ekimenez egiten dituzten esku-hartze sozialak sustatzea, laguntza

emateko immigrazioaren eta kultura arteko bizikidetzaren alorretan.

Horretarako, immigrazio arloko teknikarien kontratazioari eusteko finantzaketa emango da, baldin eta, teknikari horiek kontratatzeko, laguntza hauen aurreko deialdiren batean dirulaguntzaren bat jaso bada eta 2024. ekitaldian indarrean egon bada.

Immigrazio-teknikarien lana zeharkakoa izango da, eta arlo guztiak engaiatu eta inplikatu daitezten ahaleginduko da, migrazio-fenomenoaren politika espezifikoak politika orokorren barnean hartzea lortzeko eta, era horretan, udal-mailako baliabideak eta zerbitzuak aukera-berdintasunaren arabera normaltasunez eskuragarri jartzeko.

Kontratatutako immigrazio-teknikariek honako eginkizun hauek bete beharko dituzte:

- 1.- Immigrazioaren eta kultura arteko bizikidetzaren arloko euskal politika diseinatzen, egikaritzen eta ebaluatzen laguntzea.
- 2.- Etorkinen Harrera eta Integrazioko Zuzendaritzak edo EAEko toki-entitateek, tokiko organismo autonomoek eta tokiko merkataritza-sozietateek sustatutako alderatze- eta sare-laneko espazioetan parte hartzea.
- 3.- Etorkinen Harrera eta Integrazioko Zuzendaritzarekin batera koordinatzea haren mende dauden zerbitzuak, immigrazioaren eta kultura arteko bizikidetzaren arloan Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak sustatu eta zuzendutako politika eta estrategia orotan.

2. lerroa: Immigrazioaren eta kultura arteko bizikidetzaren arloko jardueretarako laguntzak:

Illo honen xedea da finantziazioa ematea honako arlo hauetako jarduerak egin edo burutzeko: herritarren eskubideak eta betebeharrak, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzea, diferentziarako eskubidea aitor dadin sustatzea, truketako eta elkarreragin positiborako guneak sortzea, etorkinak gizarteratzea, harrera- eta bizikidetzaren planak egitea, eta, oro har, herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren eremuekin lotutako jarduerak egitea, Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren 2022-2025eko Kulturarteko VI. Planaren printzipio gidarien arabera.

Ez da laguntzarik emango immigrazioaren eta kulturen arteko bizikidetzaren arloko jardueretarako, jardura horiek Eusko Jaurlaritzaren Laguntza Juridikoaren, Integrazioaren eta Kultura arteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzuaren (Biltzen) katalogoan eskainita badaude eta aipatutako zerbitzuak egin baditu.

Gastuetarako aldi hautagarria

Kontratatutako langileen jarduna betetzeko eta jarduerak egiteko epea **2025. urtea** da.

Laguntzen zenbatekoa

1. lerroa: Immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko laguntzak: Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak 2025eko ekitaldiari dagokion langileen kostua finantzatuko du, **urtean 30.000 euroko zenbatekoarekin, lanaldi osorako kontratatutako immigrazioko teknikari bakoitzeko**. Zenbateko hori kontratatutako langilearen lanaldi-dedikazioaren ehunekoaren arabera murriztuko da.

2. lerroa: Immigrazioaren eta kultura arteko bizikidetzaren arloko jardueretarako laguntzak: Diruz lagundutako EAEko toki-entitateek, tokiko organismo autonomoek eta tokiko merkataritza-sozietateek dirulaguntza honen xede den aurrekontu osoaren **% 25** finantzatu beharko dute gutxienez. Entitate onuradun bakoitzari emandako dirulaguntza ez da inola ere **40.000 eurotik** gorakoa izango.